

## BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4846

*EBAZPENA, 2018ko irailaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak ematen baitira, 2018rako, garapenerako lankidetzaren arloan.*

Martxoaren 21eko 6/2017 Dekretuak (EHAA, martxoaren 24koa) arautzen ditu garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2018ko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bidez (EHAA, ekainaren 6koa) iragarri ziren profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau beka, 2018rako, garapenerako lankidetzaren arloan.

Aipatutako ebazpenaren 5. artikulua horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2018ko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta baldintzetan.

Bigarrena.– Baztertzea II. eranskinean ageri diren erakundeei aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.– Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko beka horiek 2018ko azaroaren 5ean hasiko dira.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela esan nahiko du, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 26a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2018ko urriaren 4a, osteguna

## I. ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Espediente zenbakia	NAN zenbakia	Espezializazio arloa	Diru-laguntza
BEK-2018BA/0002	16071977Z	Generoa eta garapena	20.000 €
BEK-2018BA/0003	78994100W	Ekintza humanitarioa	20.000 €
BEK-2018BA/0005	72406198J	Gizarte-eraldaketarako hezkuntza.	20.000 €

2018ko urriaren 4a, osteguna

## II. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espediente zenbakia	NAN zenbakia	Arrazoia
BEK-2018BA/0001	72540934S	Dekretuaren 11.1 betebeharra ez betetzeagatik
BEK-2018BA/0004	72501383R	Dekretuaren 11.1 betebeharra ez betetzeagatik